



Data: Ekainak 2023

EPE 2022. EGONKORTZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETA ETA OPOSIZIO-LEHIAKETA ARRUNTA

(Maisu-maistren Kidegoa, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa eta Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa)

INFORMAZIO-OHARRA, CURRICULUMEI BURUZKOA

Curriculum hauek argitaratu dira 2023ko ekainaren 9ko EHAAn:

-75/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa

-76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa

-77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Beraz, deitutako hautaketa-prozesuetako oposizio-fasean kontuan hartu beharreko curriculumak honako hauek dira:

HAUR HEZKUNTZA

- 95/2022 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Haur Hezkuntzako antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena (2022-02-02ko BOE).

-75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (95/2022 Errege Dekretua garatzen du).

LEHEN HEZKUNTZA

- 157/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena. (2022-03-02ko BOE)

-77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (157/2022 Errege Dekretua garatzen du).

– Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailerako, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta EAEn ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua aukeratu ahal izango da (2016-01-15eko EHAA), kontuan hartuta 2022/2023 ikasturtean bere aplikazioa mantentzen dela adierazitako mailetan.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- 217/2022 Errege Dekretua, martxoaren 29koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena. (2022-03-30eko BOE)

-77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (217/2022 Errege Dekretua garatzen du).

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailarako, abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua hautatu ahal izango da, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (2016-01-15eko EHAA), kontuan hartuta 2022/2023 ikasturtean bere aplikazioa mantentzen dela adierazitako mailetan.

BATXILERGOA

- 243/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituena (2022-04-06ko BOE)

-76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (243/2022 Errege Dekretua garatzen du).

- Batxilergoko 2. mailarako, Batxilergoko curriculuma zehaztu eta EAEn ezartzen duen irailaren 6ko 127/2016 Dekretua hautatu ahal izango da (2016-09-23ko EHAA), kontuan hartuta 2022/2023 ikasturtean bere aplikazioa mantentzen dela adierazitako mailan.

LANBIDE HEZIKETA

- 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2011ko uztailaren 30eko BOE).

- 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2008ko martxoaren 5eko EHAA), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua (2016ko otsailaren 10eko EHAA).

Lanbide-heziketako titulu bakoitzean indarrean dauden curriculumak, lanbide-arlo bakoitzean, Hezkuntza Sailaren webgunean kontsultatu ahal izango dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> -> Lanbide Heziketa -> Lanbide-arloak -> Lanbide-arloen zerrenda

ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASLEEN KIDEGOA

- 1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena.

- 21/2015 Errege Dekretua, urtarrilaren 23koa, honako errege-dekretu hau aldatzen duena: 1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena.

Indarrean dauden curriculumak Hezkuntza Sailaren webgune hauetan kontsultatu ahal izango dira:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/ikasketak/>

https://www.euskadi.eus/web01-a2hikast/eu/contenidos/informacion/artes_plasti_disei_profesional/eu_def/index.shtml

MUSIKAKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

Arte dramatikoa:

- 1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena.

- 630/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako Arte Dramatikoko Gradu goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautzen duena (2010-06-05eko BOE).

- 23/2016 Dekretua, otsailaren 16koa, Arte Dramatikoko goi-mailako arte-irakaskuntzak Interpretazioa espezialitatean ezartzen dituena eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana ezartzen duena (2016-04-13ko EHAA).

Dantza:

- 1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duena.

- 632/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Dantza Gradu goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautzen duena (2010-06-05eko BOE).

- 22/2016 Dekretua, otsailaren 16koa, dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzak koreografia eta interpretazioa espezialitatean ezartzen dituena eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana ezartzen duena (2016-03-22ko EHAA).